



EBAZPENA, 2020ko maiatzaren 27koa, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez luzatu egiten baitira dirulaguntzak gauzatzeko eta justifikatzeko epeak, deialdi honi dagokionez: Deialdia, unibertsitatez kanpoko ikastetxeekin estatutu- zein erregelamendu-harremanak dituzten elkarte eta federazioei dirulaguntzak emateko, 2019-2020 ikasturtean ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruko berrikuntza-proiektuei lotuta prestakuntza-jarduerak egin ditzaten.

2019ko maiatzaren 13an, Hezkuntzako sailburuaren 2019ko apirilaren 8ko Agindua argitaratu zen. Haren bidez, dirulaguntzetarako deialdia egiten zitzaien unibertsitatez kanpoko ikastetxeekin estatutu- eta erregelamendu-harremanak dituzten elkarte eta federazioei, ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruko berrikuntza-proiektuei lotuta prestakuntza-jarduerak egin zitzaten 2019-2020 ikasturtean. Agindu horren xedea da Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ematen duten itunpeko ikastetxe pribatuekin estatutu- zein erregelamendu-harremanak dituzten federazio eta elkarteei dirulaguntzak ematea, baldin eta, 2019-2020 ikasturtean, berrikuntza-proiektuak egiten badituzte ikastetxeko hizkuntza-proiektua garatzeko modalitate hauetakoren batean:

- A) Ikastetxeko hizkuntza-proiektua, irakurketa-plana lehentasuntzat hartuta eta hizkuntzen tratamendu integral eta integratuaren ikuspuntutik garatuta.
- B) Ikastetxeko hizkuntza-proiektu eleaniztuna, euskara ardatz hartuta eta curriculum-material edo arloak atzerriko hizkuntzetan irakasteen zentratuta.

Halaber, agindu horretan, 17. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan xedatzen denez, 2020ko ekainaren 15a baino lehen, elkarte eta federazio onuradunek proiektuaren garapenari eta ebaluazioari buruzko txosten bat txosten bat aurkeztu beharko dute <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta> webgunean. Horrez gain, balantze ekonomikoa aurkeztu beharko dute, emandako dirulaguntza nola erabili den erakusten duena, eta federazioaren edo erakundeko organo gorenaren akta, balantze hori onartzen duena.

Bestalde, 2019ko urriaren 28an, elkarte eta federazio onuradunak eman ziren ezagutzera, ebazpen honen bidez: Ebazpena, 2019ko urriaren 25ekoa, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita unibertsitatez kanpoko ikastetxeekin estatutu- zein erregelamendu-harremanak dituzten erakunde eta federazioek, 2019-2020 ikasturtean, ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruko berrikuntza-proiektuei lotuta prestakuntza-jarduerak egiteko dirulaguntzen deialdia.

Covid-19ak eragindako pandemia-egoerak eragotzi egin du ikastetxeetan jarduera normaltasunez garatzea.

COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak onartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuak 54. artikuluko 1. apartatuan ezartzen duenez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan aurreikusitako dirulaguntzak emateko prozeduren eta laguntza publikoak deitu eta emateko agindu eta ebazpenen kasuan, 463/2020 Errege Dekretua indarrean jarri zenean eman baziren, aldatu ahal izango dira, bai diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epeak luzatzeko, bai, hala badagokio, jarduera hori justifikatzeko eta egiaztatze epeak luzatzeko, oinarri arautzaileetan adierazi ez bada ere.

Hori guztia dela eta, hainbat jarduera aurreikusita zituzten eta COVID-19ak eragindako osasun-alertarekin lotutako ondorioengatik jarduera horiek diseinatutako epean egin ezin izan dituzten ikastetxeentzat, ebazpen honen bidez, luzatu egingo dira 2019ko urriaren 25eko Ebazpenaren bidez



aukeratutako proiektuak egiteko eta emandako dirulaguntzak justifikatzeko epeak. Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Azaroaren 6ra arte luzatzea Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren 2019ko urriaren 25eko Ebazpenak diruz lagundutako jarduera egiteko epea (Ebazpena, 2019ko urriaren 25ekoa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita unibertsitatez kanpoko ikastetxeekin estatutu- zein erregelamendu-harremanak dituzten elkarte eta federazioek, 2019-2020 ikasturtean, ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruko berrikuntza-proiektuei lotuta prestakuntza-jarduerak egiteko dirulaguntzen deialdia).

Bigarrena.– Azaroaren 6ra arte luzatzea honako dokumentu hauek aurkezteko epea: aukeratutako hizkuntza-proiektuaren garapenari buruzko memoria; balantze ekonomikoa, emandako dirulaguntza nola erabili den erakusten duena, eta federazioaren edo erakundeko organo gorenaren akta, balantze hori onartzen duena.

Hirugarrena.– Jardueraren bat aurreikusita baina garatu gabe duten ikastetxeek, ekainaren 15a baino lehen, dokumentu bat aurkeztu beharko dute, jarduera hori zertan datzan eta amaitu ahal izateko zer plangintza izango duen azaltzen duena.

Laugarrena.– Epeak luzatu badira ere, proiektua amaitu duten erakunde onuradunek ebazpenean ezarritako epeen barruan aurkeztu beharko dute dokumentazioa, deialdian gaitutako mekanismoen bitartez.

ERREKURTSOAK

Ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 27a

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria.
LUCIA TORREALDAY BERRUERO